

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

88

Egilea: Nafarroako Bertsolarien Lagunak
Azala: K. Txokarro
Argazkilaria: Juntxo Egana
Fotokonposaketa: Fonasa
Inprimatzailea: Line Grafic
Babeslea: Nafar Gobernuoko Kultura eta hezkuntza saila
D. L. NA 1.529 - 1988

**EUSKALTZALE
ETA
BERTSOZALEI!**

HITZAURREA

Aurtengo txapelketarekin, 17garrena osatu dugu eta egia erran arrakasta haundiz gainera.

1936ko urtarrilean egin zen Nafarroako lehenbiziko txapelketa Elizondon. Geroztik bertsolaritzak izan ditu hainbat gorabehera; baina azpimarratzeko da, ixilaldi luze baten ondoren, 1960an Prncipe de Viana Institutioak bere gain hartu zuela txapelketaren ardura osoa eta horrela ekin zion 66arte antolaketa lanari.

Berriro ere hamairu urtetako etena dator eta lozorro hortatik ateratzeko Lesakako bertsozalek hasi ziren "Paulo Yantzi Saria" antolatzen. Honela sari ospetsu hau 83arte Nafarroako txapelketa bilakatu zen.

Harez gero Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarte sortuberria izan da lehiaketaren antolaketa lanetan arduratu dena, Nafar Gobemuaren babes eskuratuz. Laguntza hau gehituz datorren arauera aurten txapelketako bertso onenak liburuxka batean bildu nahi izan ditugu.

Beraz liburuxka hau daukagunaren eta garenaren ispilu duzu irakurle eta geroak hobetzen, zabaltzen eta indartzen jakin dezan urrats bat.

Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak aurrera ere bertsolaritza sendotzen ahalegintzeko asmoak ditu eta laguntzak lortzen baditugu ez dugu atsedunik hartuko.

Idazkariak: **Lorentxo Aburuza**

ORTZAIZEKO KANPORAKETA 1988.ko otsailaren 21a

Garai bateko zinema aretoan ospatu zen saioa, jende aldetik, hiru laurdenak edo bete zirelarik.

Partaideak: zozketan tokatutako zenbakien arabera.

1. Miura (Sara)
2. Batista Madariaga (Arantza)
3. Ezponda (Jatsu)
4. Martikorena (Igoa)
5. Mendiburu (Heleta)
6. Moises Jaso (Gainza)

Egiteko lana:

- Agurra
- Binaka zortziko haundian gaia emanda
- Binaka zortziko txikian gaia emanda
- Puntuari erantzun
- Lau oinak emanda bertso bat
- Bukaera emanda
- Kartzelako gaia hiru bertso osatzeko

Irieder: Orain hirua eta laua; Ezponda eta Martikorenarentzako gaia. Zu Ezponda mugazaina zira. Zu aldiz, Martikorena, benteroa, bentetako nagusia. Lau urteren buruan, lautanogei eta hamabian, Europarekin mugarik ez do izanzen. Zer bilakatu zirazte? Hiruna bertso zortziko haundian mugazaina hasita.

Ezponda

Lau bat urteren epea degu eman dute inkantian, eta gu orain hementxe gabiltz bai muga baten erdian. (I)kusi dezagun lege horiek juanen dira zuzenian,

bakoitxak gure lona e(g)in dezagun
hemendik ordu artian.

Martikorena

Biok dirua irabazten degu
muga honen inguruan,
baina lona bukatzen dala
nik daukat nere buruan.
Eta orain saia gaitezen
denbora dugun orduan,
a(h)al dana hartuta hasi gaitezen
gu biok kontrabanduan.

Ezponda

Ni ez naiz kontra dan-dana hasiko
ez naiz egina hortako,
bainan mementoz dagoen lanakin
segitu behar baitzako.
Lau urte hotxek heldu zaizkigu
kontuak ateratzeko,
ez beldur izan gero (e)re ez do
ez mugarikan faltako.

Martikorena

Orain bizi modu berrian
e(g)in behar degu pentsatu,
lau urte hauetan kontrabanduan
poltsak ederki berotu.
Alkar hartuta egin gaitezen
biok lanean saiatu,
eta lau urteak pasatutzean
gu ederki jubilatatu.

Ezponda

Mugazain batek kontrabandari
ezin baitute onetsi
eta zuk esan gauza horri nik
gaur ere ezin sinetsi.
Zu hortik ari zira beti da
askotan nik begiak jertxi,
zeren badakit kristau guziek
lanetik nahi dute bizi.

Martikorena

Gero zer lanegin jarrita nago
oraintxetikan pentsatzen,
bainan gustoko lanikan neri
burura ez zait etortzen.
Eta lau urte hauek orain
zaizkigunean pasatzen,
debalde jardungo naiz bai ni
mugako posteak kentzen.

Irieder: Orain bigarren parterat pasatuko gira. Ariko dira bats eta hirua; Miura eta Ezponda. Gaia zortziko ttikian erabili behar do. Zuek biak hirutanogei urtetan estudiatzen hasi zirezte. Zu Miura, ingelesa ikasten. Zu aldiz, Ezponda, latina. Miura hasita hiruna bertsu.

Miura

Hirurogei urtetan
zertan interesa,
hizkuntza bati emain
nioke babes
Gustukua ikasten
hau do angelesa,
adina izanikan
zertan dugu presa.

Ezponda

ikasten hasteko (e)re
badugu adina,
nik ikasi nahi nuke
hizkuntza bat fina.
Bertze denak utzita
ikasi latina,
le(he)ngo meza ederren
hitz hai(e)tan egin.

Miura

Meza latinez zela
duzu atera,
angelasa ere zait
hizkuntza ederra.
Eta gero bildurik
gu biok batera,
joan ditaizke urrun
han Amerikara.

Ezponda

Amerikara joan
zu eta ni biak,
hartako ez al gira
gu zaharregiak.
Latinara zabaldu
nahi ditut begiak
latinetik bait datoz
gure oinarriak.

Miura

Latinera joan to
zu ez eroria,
nere arloak aldiz
dauka bai joria.
Euskualdunen ikusten
hod zen loria,
bidaia egile do
eskualdun xoria.

Ezponda

Aid(er)atu nahi duzu
xori baten gisa,
zahartuz geroz ez da
gauza bat errexa.
Gurea e(g)in dezagun

ez gaitezen presa
nik latina (eg)inen dut
zuk e(g)izu anglesa.

Irieder: Orain hirugarren parterat abiatuko gara. Lehen lana; nik lehen puntua kantatuko dut eta zuek berttua osatu behar duzue. Eta bigarrena, berriz, nik lerromuturrak (oinak) emanen ditut eta zuek berttua egin.

Irieder

**Ahoa zerratuta
egon beti zintzo.**

Jaso

Nere kantua jendeak
entzuten du mintzo.
Hitzegitea ez du
balio berritso,
arre esaten hasi da
atera zait so.

Oinak: ARI, SARI, NABARI, UGARI.

Ne(re) bertsoak entzuten
jendea zait ari
bainan ondorenean
izango da sari.
Ez dago esan beharrik
hortan da nabari,
bertsoak bota (d)itut
aisa eta ugari.

Irieder

**Euriak ez du beti
larrua bustitzen.**

Mendiburu

Zeren orduan naiz ni
aterbez ibiltzen.
Ni bezala bazinez
zu ere gelditzen,
bustidura ez zinuke
batere senditzen.

Oinak: DAUKATE, KATE, ATAKE, GERRATE.

Euskalduna ainitzek
etsaitzat daukate,
hortako guretako
(di)tuzte hainbat kate.
Urtetik urte beti
hainbeste atake,
herri libre bagina
ez laike gerrate.

Irieder: Orain gaur arratsaldeko azken parterat: Gartzelako gaia.

2. Gaia: Chirac eta Miterrand entzun dituzu elgarri espantuka, gartzelan edo presondegian ezarri dituzten euskal presoez. Zuk horien balentriari zer diozu?

Bautista Madariaga

Chirac eta Miterrand
ditugu nagusi,
euskaldunak gartzelan
sartzen dira hasi.
Bainan berek hainbeste
lukete merezi,
nere partetik sartuko
nituzke le(he)nbizi.

Gizon hoiek zein diran
nahi du(e)nak aditu,
gure zeruko Jaunak
nola egin ditu.
Euskaldunak hoiekin
kastigatu gaitu,
hobea biok infernun
kiskali balitu.

Gizon gaiztogorikan
inon bai ote da,
sortu ziran euskaldun
guztion kaltera.
Jaunak botzen baditu
infernu batera,
neroni joango naiz
sua ematera

ETXARRI ARANATZEN (2-28)

Partaideak:

1. Joxe Miguel Argirharena (Errazkin)
2. Joxe Fermin Arginarena (Errazkin)
3. Niko Izeta (Irunea)
4. Manu Gomez (Irunea)
5. Txomin Amorena (Zugarramurdi)
6. Mikel Taberna (Bera)

Iñaki Zabaleta: Hirua eta laua. Diruz eskax dabilta Nikolas Izeta eta Manu Gomez. Hogei duro besterik ez dute poltsikotan. Diru honekin, Izetak, ogia erosi nahi du; Manu Gomezek lotoan jokatu. Hasi Izeta eta hiruna bertso zortziko haundian.

Izeta

Nere patrikan ugari ez det
urre gorrizko dirua,
eta goseak nagoelako
betetzeko helburua.
Aizak hi Manu zertako daukak
lepo gainean burua,
lotoa suertea izango dek

ogia do segurua.

Gomez

Bainan ogiak ere baditu
Niko makina bat kako
jan eta gero geldituko haiz
diruz eta gosez flako.
Lotoan dena gastatutzea
ez da nere kalterako,
irabazita edukiko det
janaria urte guztirako.

Izeta

Lotoan ez duk eguneroko
jatekoa hartzeko klasea
suerte asko ez diat eta
noa bide errezea.
Tripan zorriak badauzkat eta
bakar bakarrik haizea,
gero gerokuak izango (d)jira
le(he)nbizi kendu gosea.

Gomez

Niko gertatzen zaizkigu guri
hemen hamaika desgrazi
hala to guztiz lotoa diot
askoz hobe dela kasi.
Diru guztia hartu ezazu
ta lotoan jartzen hasi
hola ogia bizi guztian
e(d)uki ta baietz irabazi.

Izeta

Nik bahintzat Manu esango dizut
dudan asmo hau garbia
ikusten dezu goseak nola
dadukaten aurpegia.
Jesukristok hau esan zun eta
neretzako do egia,
Izan dezagun bizi artian
eguneroko ogia.

Gomez

Une bateko asean eta
bizi guztirako zama
ogia janez Niko hori da
hemen gertatuko dana.
Nik egingo det une honetan
zu ta neretzako plana,
ogia eta lotoa jarri
dezagun guk erdibana

Iñaki Zabaleta: Txomin Amorena ganaderoa da, esneketaria. Euskal Herriko esne kooperatibak elkartzea nahi du. Mikel Tabernak kooperatibaren ofizinetan lan egiten du, eta beldur da lanpostua ez ote duen galduko. Hasi Taberna eta hiruna bertso zortziko haundian.

Taberna

Nere laguna hartu ezazu
oraingo honetan arreta
fusio horrekin nago oraintxe
pixka batean erreta.
Hari adituz neri beztutzen
zaida erabat kopeta
abeltzain horiek guttixo xamar
produzitzen duzue ta.

Amorena

Esne lanean hasi naiz eta
hauxe zaitut nik er(ra)teko
gure bizian traba asko,
degu ongi izateko.
Orain ofizina atera
degula guk e(re) saltzeko
ta zure gauza beldurgarria
dezu lana galtzeko

Taberna

Nere arrazoi garbia behar
dizut oraintxe azaldu,
nahi nautela lantegitikan
kanpo aldera bialdu.
Fusio horrekin nere burua
bai eta zurea galdu,
hobea dugu makinaria
multinazionalari saldu.

Amorena

Langile denak izaten dute
beti zerbait e(re) er(ra)teko
eta nik berriz esne asko
hortxe dgaur saltzeko.
Oraingo ministro to kontuak
denak gure kontrako
diru(r)ik ez bada ofizinsta
gure etxean ez da deustako.

Taberna

Aizu laguna jarri begiak
zuzen etorkizunara
ta bereziki une honetan
hortik Europa aldera.
Alderdi hartan esnea dute
ausarki eta sobera,
guttienez hor offizinistak
bertan geldituko gera.

Amorena

Bion artean sortzen ari gera
orain kristo baten pena
eta bizian ez dira heldu
orain egunik onenak.

Estu eta gertu dabilta
beti lanean aritzen direnak
zuri mantenditzeko beharko (di)tu
deitzi behiak ta zezenak

Iñaki Zabaleta: Orain zortziko ttikian ariko dira bertsolariak baina bikoteak aldatuta. Bata eta hirua; Joxe Migel eta Izeta, beraz. Zu Joxe Migel bankoetxera sartu zero lapurreta egitera, baina beste ebasle bat aurreratu zaizu, Izeta hantxe baitago dirua poltsan sartzen. Hasi Joxe Migel.

J. M. Arginarena

Asmo batek bankura
gaur ni naraman
eta esango det dana
orain nola dan.
Boltsa batekin hango
....kolpe bat eman,
Izeta ez hitzakela
danak eraman.

Izeta

Beste bat lapurtzera
hortxen det ikusi,
eta mesedez orain
joan hi ihesi.
Ni sartu aurrena
ni nago le(he)nbizi,
kunplitu (e)zak ordena
nahi badek hik bizi

J. M. Arginarena

Kunplituko diat nik
gaur hire ordena,
arrastoan ibiliko
ote gaur nordena..
Asmo berakin zetor
gaur Arginarena,
guztienez egin behar,
dizkan erdibana.

Izeta

Badakik hor jartzen du
hor dago irteera
eta Joan hortikan
ez bada kaltera.
Bestela emango dit
tiro goitik be(he)ra,
badago bankurik to
jun beste batera.

J. M. Arginarena

Orain biek gabiltzek
hemen estu-estu,
bainan ez dek hitzegin
arrazoitan juxtu.
Erdibana egin ditzagun

hobe dala puztu,
nik ere bazebilkit
hik hainbat arrisku

Izeta

Lehen e(re) esan hemen
aurrena naizala,
eta ezta kontura
hau dek hau petrala.
Eta orain joan hadi
segittun bestela
kopetaren erdian
sartuko dit bola

Iñaki Zabaleta: Orain bertsolarientzako lan bikoitza. Lehenik nik puntua eman eta bertsoa osatu behar dute, eta gero nik emandako lau oinekin bertsoa osatu.

Inaki Zabaletak

**Hona etorri zara
itxura onean...**

N. Izeta

Jendea aditzera
baitare aurrean.
To gaia jartzen zu
hortxen bazterrean,
pasako degu aguna
giro ederrean.

Oinak: Ezker, ezer, piper, alfer.

Badakizue zuek
ni naizela alfer,
eskola jua gabe
egiten det piper.
Ta holako martxakin
ikasi nik ezer
kalabaza ugari
ditut horren esker.

Iñaki Zabaleta: Orain gartzelako gaien sartuko gara. Beraz, J. M. Argirfiarena ezik gainerako bortzak kanpora daitezen eskatuko diegu. Bi zatitan banatuko do lan hau:

1. Emandako bukaerarekin bertsoa osatu behar dute.

i

**Nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.**

2. Emandako gaiarekin hiru bertso osatu doinu eta neurri librean.

Gaia: goizeko ordulariari bere doinua entzutean.

J. F. Arginarena

Hainbeste mitin to politiko
hizketan hor egunero,

gehiegi hitzegiten do hemen
emaitza bate ez gero.
Batasunean Euskalerrria
gerora ere hortxe bego,
*nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.*

Izeta

Euskalerrrian burukatzen do
gogor eta bizi gero
eta hortatik nolabait ere
zerbait gentzake espero.
Bainan burrukan Madrilen kontra
hemen gabiltz egunero
*nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.*

J. F. Arginarena

Despertadore hots hori sarri
guretzat ez da atsegin,
bainan bestera guk aginduta
biharamonean hotsegin.
Guk ere mende ote gabiltzan
aurrez nahi nukena jakin,
despertadoreak jotzen baitu
gizona esnatu dadin.

Izeta

Atzo gauean pasatu nituen
parrandan orduak tinko,
eta goizeko bostetan ere
ez nintzan ni etorriko.
Eta orain zortziak dira
eta hortxen gaude kito,
baina alferrik joko dezu zuk
ni ez bait naiz gaur jeikiko.

J. F. Arginarena

Eta guretzat astele(he)n goizez
sarritan desengainua,
hemengo inork egia esanda
bai al dio karinua.
Beste agindu bat ematera
erlojuari ni nua
is zer goizez jotzen didazun
askatasun doinua.

Izeta

Katxarro hauek mundu honetan
gauza aldrebesak dira,
nahiago nuke txori doinuan
gisa antzekoak balira.
Eta orain jotzen ari do
baina zer egingo det guztira
jo to itzaidu to jarriko det
almohadaren azpira.

J. F. Arginarena

Erlojuaren mende gaudela
esatea degu errez,
bainan guk agintzen bait diogu
berak egin dezan aurrez.
Eta goizean txintxo fitxatzen
lantokin bere eskerrez
aurrera ere jotzen ta entzuten
jarrai dezagun mesedez.

Izeta

Esan bezala oheratu naiz
bart arratseko bostetan,
to ederki asko epel ta gaxo
hemen nagoen mantetan.
Eta hor dago txirrina joez
borrokatzen det benetan
leihotik behera botako dizut
ea hiltzen zeran bertan.

Taberna

1

Azken honetan hemen gabiltza
gero eta estuago,
hainbat gauza ilun ikusten dugu
berdin ipar eta hego.
Burua hausten nondikan irten
is bihurturik ero,
nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.

2

Zure ahotsaz egunon esan
didazu eginik kantu
eta bertsotan nolabaitean
eginen dut arrapostu.
Hementxe hero-bero nengoen
eta behar dut jokatu,
egia esan zure kantuak
ez nau ni gehiegi poztu.

Zure kantua entzun ondoren
agurtu behar dut dama,
eta elkarri eman beharra,
orain gustoz muxu bana.
Askotan ezin jasan izaten
dut zure kantuan zama,
oroitarazten bait dit egin behar
dudala geroan lana.

Zure hots hori entzun ondoren
jeikitzeke nago nagi,
erran bezala gustagarria
ez da izaten gehiegi.
Jeiki beharra maitia agur
eta beti legez segi,

gaurko eguna atzokoa baino
hobea gertatu bedi.

EHIRALARREKO KANPORAKETA

Gai Jartzailea: Irieder

Partoideak: Zozketa egin eta tokatutako zenbakiaren arabera.

1. Olano (Arano)
2. Eusebio Fagoaga (Ituren)
3. Alkat (Iholdi)
4. Mixel Xalbador (Urepel)
5. Zeberio (Irurhea)
6. Aburuza (Irunea)
7. Arozena (Lesaka)

Irieder: Orain hirua eta laua; Alkat eta Xalbador. Zu Alkat hirian bizi zira, baina mendizale izaki eta penaz ikusten dituzu zombait bidexka hondatu dituztela, ohianean pistak, elurreko pistak egin beharrez. Zu Mixel, ohian hortako lantegi batean egurgile zira. Hiruna bertsu zortziko haundian mendizalea hasita.

Alkat

Menditarrentzat bizia neke
herri honetatik ageri,
ogibidea zaindu dezagun
uztartu gaiten elgarri.
Hoinbertze gauza eskein beharrez
kanpotik dago zeineri,
galda nezake utzi mendia
otoi menditar hoiei (bis).

Xalbador

Elurrera jin nahi dutenek
hemen hoinbertze zorion,
bilatzen diet ai ikusten duk
ohiana zer gisan dagon.
Herri bideska hok ikusteak
lagun ez deak egin on,
hik ere hemendik joan gabe
hemen behar huen egon (bis).

Alkat

Elurrarekin egurrarekin
batzuek dituzte lanak,
bihotz barnera sartzen zerauzkit
lagunak orain emanak.
Ogi gosean hirian ere
egun badira andanak,
herritik kanpo joan behar du
ogirikan ez daukanak (bis).

Xalbador

Ohianetikan bizi modua
lagun balaiekek segurra,
to ohian hortan arrotz horiek

ikusteaz arrangura.
Aurki to laster horra hiritar
horri egin zok agurra,
bertzenaz arrotzak hartuko diek
elurra eta egurra (bis).

Alkat

Elurra eta egurrari nik
egin nahi dut agurra,
bien aldera joaiten bait naiz
ni guziez barura.
Bainan hirian bizibidea
enetzat dago segurra,
eta pobreen ogibide do
elurra eta egurra (bis).

Xalbador

Horren ofizioari duk hik
ihes hire arabera,
ta lagun batenganik ez naiz ni
horrek uzten alegera.
Hemen ere bizi bait litaik
etorri ohian aldera,
elkar lagunduz biziko gaituk
arrotzak botaz kanpora (bis).

Irieder: Orain bigarren parterat pasatuko gira. Ariko dira bata, hirua eta zazpia. Zu Olano, denda edo komertzio ttiki baten jabea zira. Zuk aldiz, Alkat, Hipermerkatu bat eraiki nahi duzu ondoon. Zu Arozena eroslea zira. Hiruna bertsu zortziko ttikian, dendaria hasiz, Alkatek jarrai eta eroslea azkenik.

Olano

Ez naiz inkomoratzen
gaurguan ezerke(re),
to beldurra gutxigo
gutxitan inorke(re).
Honek jarria digu
gaur hutsaren truke,
bi emango dizkizut
honek bat be(za)in merke.

Alkat

Eroslea zerauku
egun atzerian,
komertsanta aldiz
ongi,ta lorian.
Nik ere denda on bat
daukat errabian,
prezioa ttikia ta
magazin haundia

Arozena

Beraz bera dijua
gauzaren kostera,
batek merke to bestek
merkego osteria.

Ni ez nijua hemen
demandan hastera
baina etxetik urrun
ez noa erostera.

Olano

Ez nuen Alkat gaurkoz
nik askorik uste,
denda hortan badauzka
gaur milaka traste.
Bainan erosle sinits
etzazula uste,
onik ez dauka ezer
txarrenak hainbeste.

Alkat

Onetik daukadana
nik erranen dautzut
haundi aberats naiz
eta burua xut.
Biek hor espantuan
tirrit eta turrut,
hamabost egun gabe
nik itoko zaitut.

Arozena

Onena otoi zatoz
aizu txiripito,
ttikia ito nahian
bakarrikan kito.
Bainan gauz onik ez dut
gaur nik horiekiko,
biek ere baitira
hoik nahiko ijito.

Olano

Egiten dizut Alkat
alboitikan galde,
beraz ijitotzeko
presturikan zaude.
Uste txarrean lagun
gaurkoan hain gaude,
zu izorratzeagatik
salduko debalde.

Alkat

Debalde saltze hori
ez daike betiko,
haundiak nonbaitik
baitako jalgiko.
Bertze hau ere luzaz
ez da ageriko,
zuri hitzeman ta
neri erosiko.

Arozena

Alkatek lurpera du

bere konduta,
erosleak e(re) bere
aukera nahi du ta.
Olano hortxe daukat
begitan hartuta,
beraz debalde noa
horreri kenduta.

OINAK: Barda, narda, behar da, karga.

E. Fagoaga

Kezka galanta banun
bai nik ere barda,
honera etorri beharra
banun nahiko karga.
Ta nola honeraz gero
inor ez da narda,
to hortarako guztia
hemen egin behar do.

OINAK: Hasi, nahasi, ikasi, sasi.

P. Zeberio

Bertso eskola batian
egin ginan hasi,
hantxe ibiltzen gara
iota bera nahasi.
Baztarrak nahastuta
sortuz hainbat sasi,
holaxen nahi degu
bertsotan ikasi.

OINAK: Gaztea, emaztea, atea, hastea.

M. Arozena

Gehiago egin dut hemen
bertsotan hastea,
nahiz animatzera
dator emaztea.
Atzean hantxe dago
lirain to gaztea,
ihesi nijua ta
ideki atea.

Irieder: Orain laugarren parterat pasatuko gira, hots; gartzelako gaiara. Lehenik bukaera emanen dut bertsoa osatzeko eta gero gaia jarriko dizuet hiru bertso egiteko doinu eta neurri librean. Erran gartzelako gaian, bertsorik onena egiten duenarentzako kopa bat izanen dela herri honetako auzapezak eskeinirik.

E. Alkat

Egiari bihotzez
egiten dut agur,
bainan egia ere
jendea da beldur.
Bide onena dela

Alkat beti segur,
erran behar dut bada
ez gelditu uzkur
gezurrak betidanik
zangoa du labur (bis).

Xalbador

Makur haundia egin dezazke
hori do gauza segurra,
bainan halo ere gure gobernu
gizonek hori ardura.
Dabilateta egun hauetan
ez horri egin agurra,
Chirac-ak eta Miterrandek gaur
baliatua gezurra.

E. Alkat

Hoinbertze auzi bada
nunnahi gaur egun,
bakotxaren bizitza
ez al zen gu ilun.
Egiaren bidea
hertsi ta urrun,
bainan denek egia
har dezagun lagun
herriko gezurtiak
salhatu ditzagun (bis).

Xalbador

Gezurrak borne iluna duke
txuria badu azala,
bainan hainbertze hau dabilate
egia balitz bezala.
Ni izan arren naizen gizon txar
xumea eta apala,
gezurretikan gure jainkoak
beti begira nezala.

E. Alkat

Gezurra merke dela
nunnahi ohartzen,
baina gutarik gutti
al dute onartzen.
Gezurra entzutean,
ni ere oldartzen,
egia laguntzea
dautzuet galdetzen,
gezurrarekin ez da
deusere salbatzen (bis).

Xalbador

Ez dira behar hemen nahasi
gezurra eta tratua,
gezurra zer den bakotxa bera
bai ditaik ohartua.
Ta zortzigarren manamenduak
hau hala debakatua
nehork ez ate du kentzen ahal

gezur madarikatua.

L. Aburuza

Hitz bat entzunda nere barrura
sartu zaidala beldurra,
ta erantzuna ematea ere
ez dugu oso xamurra.
Berriro ere jarri beharko
ene kopeta zimurra,
gauz(a) horrentzako agurra (bis)
nahiz egia sarritan hemen
ez izan hitz xamurra,
nere partetik baztertu nahi det
bizi guzian gezurra (bis).

Bizitza hontan ongi jokatzan
ez da ere atsegina,
bata bestea kanporaturik
nolatan ez den berdina.
Bainan urruti alde hontatik
hartzen diet nik usaina
ta hod gauza jakina (bis)
Madril aldetik ta Paristikan
datorrela gaur etsaina,
beste moduan ibiliko zan
egizaleak bagina (bis)

Gezurrarekin dihoala gaur
hainbat esaldi pila
ta erantzunak eman nahiean
aurrez politiko pila.
Peria holaxen sortzen da hemen
hutsen truke iskanbila,
hara zer dan marabila (bis).
A(ha)legin guztiz bultza dezagun
zoaz egiaren bila,
ta nere asmo jator hau orain
egi bihurtu dedila (bis).

Arozena

1.

Ez dut gustoko sekulan izan
bertsoaren txapelketa,
nahiz to adinez aurrera Joan
ni ezin egon gordeta.
Epea ere ez da bukatu
nahiz zuek egon haseta
bizi moduan izan behar do
itxaropenez beteta.

2.

Mundu honetan zuzen Joan behar
hor dago gure egurra,
nahiz to gutxitan zuzena izan
hor da nahi dugun apurra.
Bide zuzenen ez dihoanak
egin lezake agurra,

bi bidetako etsaia baita
ezpainetan dan gezurra.

Kontu kontari ibiltzen dira
ustez hain bide haunditan,
politikoen martxa harturik
nahiz gaizki irten erditan.
Faltsokeria ezaguna do
begiraturik begitan,
naizen apurra nahiago dut nik
behintzat izatea egitan.

Egi bides dugu zuzena
hor dago gure arnasa,
nahi ta askotan geran gutxitik
bide zuzenez ez pass.
Bainan txintxoia izatea ere
nolatan ez do jolasa,
egi bidean nahi nuke hemen
nik eman nere arnasa.

GOIZUETAKO KANPORAKETA

Saioa, Goizuetako zinema aretoan ospatu zen, jende aldetik topetaraino bete zelarik.

Partaideak, zozketaren arabera:

1. Fagoaga (Ituren)
2. Inurrategi (Irurhea)
3. Laka (Baigorri)
4. Elizagoien (Arraioz)
5. Aristorena (Irunea)
6. Salvador Madariaga (Arantza)
7. Bautista Perurena (Leitza)

Gai jartzailea: Iñaki Zabaleta

Gaia: Barrionuevo eta Pasqua, Espania eta Frantziako polizi-buru dira. Gauza hori esanda, zu Elizagoien, Barrionuevo zera eta medaila bat eman diozu Pasqua-ri. Zergatik? hasi Barrionuevo.

Elizagoien

Azken urt hauetan zuk egin
dezu hor lana bikaina,
Frantzia zaindu nahi dezu eta
zaindu dezu ere Espaina.
Eta nik zerbait egin nahi dizut
horren ordez alajaina,
medail bat ematen dizut gaur
lana horrentzat ordaina.

Laka

Orain urte bete egin zendun
Frantziari eskaera,
euskaldunak behar zirelako
zure kartzela hoietara.
Lan hori nik egin zidan
zuk medaila emaitera,

hitz dautzut hemendik goiti ere
jarraikiko dut aurrera.

Elizagoien

Gure lantegia hasia da
mundu osoa nabaritzen,
lan ederra egiten bait dugu
Madrilen eta Parisen.
Eta hemendik aurrera ere
guziok bildu gaitezen,
ia falta genuen pake hori
egun batez degun lortzen.

Laka

Frantzes ta espainol ministroak
ez gira bate(re) askoak
horra zergatik elgarri dugun
gurutzatuak eskuak.
Elkar laguntza hortan bait dago
gure arazotakoak
Barrionuevo zure eskuko
dago beti hor Pasqua.

Elizagoien

Zure lan eder horrek egina
gaur hor mila grazi to
askori utzi bait diozu zuk
hor mugak danak itxita.
Eta Espainia egin (e)zazu
gainera laister bisita,
agur bero bat egingo dizut
daukazu ongi irabazita.

La ka

Sasi gudariak gelditzea
zenuen zure asmoa,
Frantzi(a)ko lurtean zauden eta
banuen nere susmoa.
Oraingo bilakaera horren
aitortzera ni banoa,
uste dut beltzutua dugula
guk hoi terrorismoa.

Iñaki Zabaleta: Eta orain hirukotea; Aristorena, Xalbador Madariaga eta Bautista Perurena.

Gaia: Aristorena maisua do. Eskolan belarriondokoa eman dio mutiko bati, Xalbador Madariaga; eta Batista, mutikoaren aita. Hasi maisua.

Aristorena

Gure Xalbador mutil-neskekin
ari zen zizti ta zazta,
abisurikan n!k eman diot
behin baino gehiago basta.
Aizu Batista zure semeak

azkenik eman dit nazka,
horregatikan ondo mereziz
eman diot hortxe kaska.

X. Madariaga

Maisuzar honek belarriondun
eman izandu dit mina,
eta hori do nere aitak e(re)
sentitzen duen haundina.
Hari izaten da beti azkenik
mastru gaistuen propina,
orain joka ne(r)i erakutsi nahi
le(he)no berak ez dakina.

B. Perurena

Ederki samar egin diozu
horregatik zera maisu,
errespetua jarri (du)zulako
asko alegratzen na(u)zu.
Berriz e(re) konponduko gerade
bai ongi ni eta zu,
ederki e(g)ina dago hori
merezirik zanpa dezu.

Aristorena

Bildurrez nengon etorri baita
bere bastoi eta guzi,
pentsatzen nuen gaurko honetan
zer behar gendun ikusi;
eta batere espero ez nu(e)la
semearen aurka hasi,
eskerrik asko Batista baina
hainbeste ez nun merezi.

X. Madariaga

Gaur egunean maisu batzuek
dira haren traidoria,
mutiko gaixo, jota lurrera
hor izandu eroria.
Berriz eskola ikasteko (e)re
nola izango dek humoria,
seme gaixuak pagatutzen du
aita gaixtun ondorioak.

B. Perurena

Aizazu seme maisun esana
aitak beti du sinistu,
etxean gezur esan hutsakin
ez bailitake kunplitu.
Maisuak esandakuak ere
behar dirade aditu,
ai zure aita za(ha)r honek ere
holakoak hartu balitu.

Aristorena

Ordun Batista zu (e)re halako
kontuak zera paseak,
noski ez baitira txantxetarako
maisua onaren klaseak.
Xalbador ondo portatu edo
a zer belarri luzeak,
zuk etxetik to nik eskolatik
joango zaizkio haizeak.

B. Perurena

Nik e(re) neria esan behar dut
guztiok entzun dezaten,
nere seme hau hemen ari zait
disgusto asko ematen.
Maisua oso fina dabila
gezurrik ez du esaten,
hau eskolara bialdu eta
sagar kokotiak jaten.

X. Madariaga

Maisua aita ume gaixuntzat
hok daukaten kontzientzia,
deretxuarik ez da umetxiki bat
hola joka ibiltzia;
hobe lukete etxian ondo
hartu to gobernatzia,
ederrak hartu beharzte biok
ni eskoltik gelditzia.

Inaki Zabaleta: Orain beste bikotearekin segituz, bia eta bosta: Inurrategi eta Aristorena. Jendearentako oporraldiak eta bidaiak eraten dituzten agentzia batean lanean ari do Inurrategi. Munduko bazter guztietara antolatzen omen dituzte bidaiak, baina gaur Aristorena etorri do ilargira joan nahi duela esanez. Aristorena hasi eta hiruna bertso zortziko txikian.

Aristorena

Bidai bat egiteko
daukat nik asmoa,
antolatzen duzula
hartu det susmoa.
Eta gure mundua
ez denez sanoa,
zuek denak utzita
ilargira noa (bis).

Iñurrategi

Sano asko etorri do
hona bere kasa,
eta galdetutzen dut
.ote do kapaza
To gainera esan du
dena lasa-lasa,
hortarako bisita
behar duzu Nasa (bis).

Aristorena

Zuk esan behar ote

didazu ba nora,
hau al do gizon batek
gaur daukan ganora.
Preparatu dezazun
hartzazu denbora,
satelite txiki bat
neretzat nahiko do (bis).

1nurrategi

Idea disparatu
asko daduzkazu,
bainan zuk Pablo Joxe
hauxe entzun (e)zazu.
Ilargiraino lasai
joango zero zu,
autobuses joatia
asmatzen badazu (bis).

Aristorena

Hori antolatzea
kostako do hamaika,
ez zait neri gustatzen
mundu politika.
Eta igual le(he)rtuko da
gerra atomika,
handik ikusiko det
nik zirko polita (bis).

Inurrategi

Zure segurtasunez
hainbeste zarata,
planteatuko dizut
ideia aparta.
Ikasi zientifiko
edo astronauta,
orduan dohainikan
joango zerata (bis).

2. Oinak: Jaio, zaio, saio, garraio,

Gure onurarako
hor mila garraio,
kutsadura zikin bat
ondorez do jaio.
Ta hori probatzeko
hor ehun mila saio,
guzti hau gizonaren
errua(r)ji zor zaio.

Iñaki Zabaleta: Azkeneko partean sartu gara eta orain heldu zaigu gartzelako gala. Beraz, bat ezik bertzeak kanpora irtengo dira eta puntu bukaera eta gai berdina jarriko diegu guziei.

1. Amaiera:

Guri horretxek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2. **Gaia:** Itxura zarpaila omen duzula eta ez zaituzte elizan sartzeko utzi.

Aristorena

1

Kanporaketa zela jakinik
guk zazpikotea osa,
genduen eta topatu degu
gutziz giro aproposa.
Guk zuentzako kantatu eta
zuek gaur gurekin goza,
guri horrexek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2

Nire Elizara abiatu naiz
guraso za(ha)rren usantzan,
Jainkoarengan eta fedean
jartzen dudan esperantzan.
Itxura txarrik ez daukat ustez
ez naiz hurbildu balantzan,
ta apez jaunak nere itxura
zertan jarri du zalantzan,
eliza uzten ari dira to
hauxe bakarrik falta zan.

FINALA **Irunean 1988ko Martxoaren 20an** **AGURRA**

Iñaki Zabaleta

Eguardiarte-on bertsolari, bertsozale eta Iruneara
etorri zareten euskaldun guztioi. Gaur ospatzen
dugu, hain zuzen ere, XVIII garren Nafarroako
Txapelketaren finala.

Epaimahaikoak Joxe Urroz, Mikel Bujanda, Aingeru
Epaltza, Mariano Izeta, Jean Pierre Etxegoien eta
Emile Larre ditugu.

Zortzi finalistak hauek izango ditugu: Mixel Aire
"Xalbador", Jean Pierre Mendiburu, Pablo Joxe
Aristorena, Ernest Alkat, Joxe Fermin Arginarena,
Txomin Ezponda, Manolo Arozena eta Lontxo
Aburuza.

Zozketa egin eta beren tokietan jarri ondoren,
agurra banan bona kantatu dezatela eskatuko
diegu bertsolari bakoitzari.

Aburuza

Len dantzariak eta orain guk
zuei ongi etorria
berdin irratiz entzuten dagon
euskaldun zahar to berria;
apustu zale amorratua
nolatan dugun herria
zortzikotea hargatik gaude

Gaiarre hontan larria,
baina Lorentxok kandela bat du
ongi piztuta jarria.

Arginarena

Egunon eskeini
kantari naiz jausten
Gaiarre beterikan
pozez dut ikusten,
beste asko irratiz
patxadan entzuten
gu saiatuko gera
jator erantzuten
gu entzundako penik
izan etzazuten.

Ezponda

Ongi etorri bertsozalea
(i)kusten dut bildu zarela
zuk badakizu laguntza gabe
gu gauza gutxi gaudela,
bai guretzako beharrezko da
zuen txaloen epela
ta beste batzuk irratiz bidez
gure entzuten daudela,
nere agurra hartu zazute
musu pare bat bezels.

Aristorena

Agur t'ardi entzule
agur Nafarroa
gaur unkittua zauden
euskal arranoa;
irratiz ere agur
Euskadi osoa.
Ta ikusiz jendeak
dakarren asmoa
egindako guztia
zuendako doa.

Mendiburu

Gutarik batto onttoen gisa
sortu zen Eiheralarren,
ikus orduko pentsatu nuen
sartuko zela Gaiarren.
Goizuetako lesakatarrak
eia zer kristo dakarren!
Iroan egun ikus dezagun
ahalik eta azkarren,
nik txapel hori galduko nuke
berak irabaztearren.

Arozena

Gaiarre dena euskaldundua
jaunak hau da zorional
nahiz to napparren nortasun dena

sarri zalantzan egona.
Ez dakit nora iritxiko den
hemengo bertsoen sona,
hau ikusita daldartuko do
Urralbururen poltrona.

Xalbador

Nafarroako bertsolarien
xapelketa eguna
ez bedi izan iluna
agur bat huna
zuri laguna
ta erantzuna
da zuk jo txaloz
nahi duguna.

Alkat

Agur entzule onak
ta agur Iruna
nafar seme-alabek
ama zaituguna;
zure altzoan beharko
iragan eguna
nork ez luke nahiko
izan xapelduna?
Gaiarre ikustean
oso euskalduna.

Iñaki Zabaleta: Lehenbiziko lana zortziko haundian izanen da, hiruna bertso bota behar. Eta lehen bikotea, ezkerretik hasiz, Lontxo Aburuza eta Arginarena izanen do. Zu, Aburuza, karfa banatzailea zara, zu, Arginarena neskatxa, etxe aurrean karteroa noiz etorriko zai zaude. Hasi Aburuza.

Aburuza

Ni karteroa nauzute eta
hau esperoan dagona
ta egunero ni txintxo txintxo
etortzen natzaizu hona;
gaurkoan ere ekarri dizut
neskatxa nik zoriona
ta honek adierazten du bai
bestea dala oso ono.

Arginarena

Karteroari salatuz lenen
jaunak beharko da jausi
berri ona ere edozeinentzako
ere ez dago itxusi;
nik karta irekitzerako gaur
gauza bat du garbi utzi
neretzako karta bidalita
zuk zertan duzun ikusi.

Aburuza

Salatzen hasi zero neskatxa
ta gainera oso trebe,
baina erantzungo dizut eta
egin zaite honen jabe
langile fina nauzu ni beti
ez naiz besten pare gaur e*
to tankera ematen diot nik
batere ireki gabe.

Arginarena

Mutila kartzelan daukat eta
aspaldi hontan bakarrik
nahiz ta gure arteko lazoak
ez dauden oso elbarrik.
Karteroa sarri samarretan
berri tristeak ekarrik,
berri txarrak ekartze ezkeroz
ez daukat zure beharrik.

Aburuza

Nere lona esan dizut lendik
ez dala bate jolasa
zu karta zai ikusten zaitut nik
udaberriko arrosa;
bestea kartzelan daukazula
eta nola kristo goza?
Baina gaurkoan ekartzen dizut
askatasun horren poza.

Arginarena

Mutil bat espetxean triste ta
zer da nere ondorena?
karteroak azken bertso hortan
eskeini itxaropena.
Egun hori laster iritxitzen
hori ere do leikena,
mutila zerorrekin ekarri
hori berririk onena.

* e = ere

Iñaki Zabaleta: Ezponda eta Mendiburu. Diotenez Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian
baino haur gutxiago sortzen da orain.
Ezponda ezkongabea, donadoa hortaz arras kezkatua dago. Mendiburu gizon ezkon berria.
Hasi Ezponda.

Ezponda

Ezkon berri da nere lagun hau
egia erran behar da
zu haur egiten lotu zaite ba
nihundikan ahal bada;
mundu triste hau zahartzaroari
buruz partitua bada
eta gu zer bilaka gintezke
gero gazterik ez bada?

Mendiburu

Ikusten dut gaur donado hori
geroaz grinan dagola
euskalduna do, ama Euskadiz
haundi du bere axola;
beraz neskekin bero itzazu
bihotza eta odola,
ezen munduan deusentzat ez da
fruitu gabeko arbola.

Ezponda

Arbola zahar baten itxurara
orain ezarri bai naizu
bakartatean bizi den hura
ez da beti zoriontsu,
hortarako ba gaitz txar hortarik
ateratu ba zaitez zu
zeren bakarrik zer sofritzen den
zuk gaztea ez dakizu.

Mendiburu

Zer sofritzen den ongi badakit
erantzuna orai goaita*
Euskal Herria ume edo haur
behar gorrietan baita,
ta ni bezala euskaldun neska
polit bat zazula maita
ta ni bezala zu ere bihar
izan zaite haurren aita.

Ezponda

Neska gazte bat maite nuen nik
hura mundutik juana
garai batean ezin nezaken
nik izatea hauxe asma.
Eta hargatik goratu nahi dut
ezkon berri hoiien fama
neronen bizkar hartzen bait dut nik
bakartatearen zama.

Mendiburu

Bakartateak derautzu naski
buru barnea nahasi,
ezkon berriak, ail mutil zaharra
egiten dautzu garraisi,
zatoz enekin maitalen bidez
behazu** zerbait ikasi
ta ordu denak maitatzen eta
haurrak egiteren hasi.

*Goaita = hauteman, ohartu.

** Behazu = Behar duzu.

Iñaki Zabaleta: Aristorena eta Arozena. Aristorena hiritarra pozik da aurten zerrikoa eta bildos-
kia merke direlako. Arozena abeltzaina da. Hasi Aristorena.

Aristorena

Egia ez da dena agian
baina kejarazten ari da
abeltzain hauek bizi bait dira
diru jaunari begira,
neretzat aldiz gauza guztiak
nahiko merke izaten dira,
mendian kontent ez baldin baza*
zatoz nerekin hirira.

Arozena

Hiri aldera joateak badu
izugarritzko grazia
Europatikan sartu didate
hainbat aragi bitxia,
eta gu hemen bizi ezinez
bada nahiko desgrazia
hamabiak bat egin gera ta
kendu didate bizia.

Aristorena

Eurapakoak entzute hutsak
oraintxe jartzen nau irriz
behar genuen hortara sartu
ta zu gaizki zaude aldiz;
teknolojia hartu ezkerro
bada abantaila anitz,
hutsa litzake baserritar hau
langile jatorra balitz.

Arozena

Jatortasunen ari naiz lanen
baina ni ez nago aske
produktu batzuk kanpotik datoz
to deitzen diote "txoke".
Nik hemen ezin dut gauzik jarri
kanpokoak bezain merke,
horregaitikan gosez hil behar
Europara joaten truke

Aristorena

Europa hortan sartuak ginen
joandaneke urtean
baina agian kolpean sartu
geranez bete betean
konpetentzia izanen dugu
Europako Elkartean
baina anaiak geran ezkeroz
biok konpondu gaiten.

Arozena

Eskertzen dizut borondatea
eta daukazun aria
beraz hargatik eman beharko
merezi dezun saria;
janari txarrak hor kanpotikan
pilaka etortzen dia**,
gehixego ordain baina zuk lagun
erosi hemen janaria.

* Baza = Ba zaude.

** Dia = Dira.

Iñaki Zabaleta: Xalbador eta Alkat. Mugaz bestaldeko herritik abiatu badator Xalbador, Gaiarreko saio honetara. Bidean gelditu eta ostatu batean sartu da. Ostaturik nagusiak, Alkatek, zera esan dio: "Hemen ez da diru frantsesik hartzen". Hasi Mixel Aire.

Xalbador

Abiatu naiz ni Iruñera
garaiz heltzeko asmotan
ta pentsatu dut ene tripari
plazer hor egin dezotan,
kafesne goxo bat hartu ere
zure ostatu on hortan,
erran zadazu zenbat zor dutan
orai horrentzat frankotan.

Alkat

Nafartarra naiz franko kondatzen
ez dago gauza erreza
kafea dautzut eskeintzen zuri
nahiz ez naiz aberatsa.
Nik ere noizbait Europarako
egin nahi dut amentsa,
anarte huntan izorratzaile
daukagu diru frantsesa.

Xalbador

Alta* frantsesik baizik ez daukat
pezetik ez dut nik garde
izan banitu eman nezazke
disimulatzeko orde.
Nafarroako seme bazara
orai egiten dut galde
kafesne hori mesedez utzi
pagatu gabe debalde.

Alkat

Ez uste izan Nafarra huntan
denak gaudela eruak
diruarekin guk ere naski
derauzkigu helburuak,
pezetarikan ez daukazula
houxe du zure buruak,
nolaz gastatzen dituzu bada
kontrabandako diruak?

Xalbador

Diruak nola gastatzen tutan
ere nahi du hunek jakin,
behintzat eni zor zerbait uztea
ez daut egiten atsegin.
Orai banoa Irunera ta
sarri nahi gibelerat jin**
doblezka dizut hau ordainduko
han irabazi peztekin.

Alkat

Oso konforme agerfu nahi
eskeintzen duzun tratuan,
frantzesek ere abilezia
daukate bere tontuan;
elgarrekilan baketu gaiten
kafetxo horren kontuan
euskal dirua izan artean
Euskal Herri libratuan.

*Alta = Hara ba.

** Gibelerat = Atzera etorri.

Iñaki Zabaleta: Lan berrian sartuko dira orain bertsolariak. Bakoitzak zortziko txikian hiruna bertso bota behar, bikoteak aldatuaz. Lehenengo bikotea Mendiburu eta Lontxo Aburuza. Goizean goizetik onddoak biltzera joatekoak zerate zuek, Lontxo eta Mendiburu. Esandako orduan, goizeko seietan, hor da Lontxo Mendiburu noiz etorriko zai. Ez da ageri eta bila joan zaio. Hasi Lontxo.

Aburuza:

Goiza heldu da eta
legortutzen ihintza,
elkarrekin aspaldi
Jean Pierre gabiltza,
baina parrandatikan
okertuz zabilta
eta nora joan zaizu
lagunaren hitza
tra, la, ra, la, ra, la
lagunaren hitza.

Mendiburu:

Ez zaitela aserre
zaude otoi mantxo
oraino goizegi da
konturatu Lontxo,
ohean egoitea
on da eta kontxol
andrearekin ere
zagon hainbat goxo
tra, la, ra, la, ra, la
zagon hainbat goxo.

Aburuza:

Andrearekin honek
lanean indartsu
eta bide hortatik
zuk franko dakizu
baina pasatzen dizut
momentuz abixu
azkar jeiki zaitela
zuk jan nahi baduzu
tra, la, ra, la, ra, la
zuk ion nahi baduzu.

Mendiburu:

Irria jautsi zauzu
begitik hortzera
Mendiburu utz zazu
otoi etortzera,
ni faltan ez zaiz joan
hemendik etxera,
ta onddoak utz kizu*
oraindik sortzera,
tra, la, ra, la, ra, la
oraindik sortzera

Aburuza:

Ate ondoan zai gaur
daukazu txoferra
ta hartu duzun hori
zuk bide okerra,
entzun zaidazu orain
arrazoi ederra
nere iritzian zu
zerade alferra
tra, la, ra, la, ra, la
zerade alferra

Mendiburu

Alferra naizela zuk
oi! erran duzia
Lontxo adiskidea
baina itxusia,
badaukagu denbora
hortan da hauzia
gure eskuko dugu
atsalde guzia
tra, la, ra, la, ra, la
atsalde guzia.

* utz kizu = utzi itzazu

Iñaki Zabaleta: Arginarena eta Ezponda. Arginarena irakurzalea, etxean lasai egon nahi luke.
Auzoan Ezponda tronpeta jotzen ikasten ari da. Hasi Arginarena.

Arginarena

Horrelakorik zihur
gertako inon da
baina ezin da esan
isilik egonda,
tronpeta jotzen dabil
alboan Ezponda
hemengo errespetoa
lagun zaharra non da?.

Ezponda

Tronpeta jotzen ari
bai naiz ni bultaka*
auzoko tetele hunek
logalea dauka,
eta bien artean
gaur sortu den marka,
hik belarritan sarkik**

hor bi paper puska

Arginarena

Zer edukazio daukan
Gaiarren ikusten
lagun bat jarrera honek
beti du itxusten,
irakurritz kulturez
nahi nikek bai jazten
bertso zarrak irakurtzen
ez didak hik uzten.

Ezponda

Bertso zahar irakurtzen
denbora guztiak
ni berriz hartua nau
tronpeta jotziak,
denek hartu ditzagun
guk pazientziak,
musika gabe nola
dantzatu gaztiak.

Arginarena

Tronpeta gabe dantza
liteke munduan
baina ez irakurri
honetxan onduan,
pazientzia galduta
leku seguruan
juten banaiz tronpetakin
joko det buruan.

Ezponda

Hunek nere jotzeko
nun du ahalmena?
mesfiatu liteke
nita jiten*** dena.
Nik tronpetaz jotzen dut
soinu politena
hunera orroa dago
tronpetik txarrena.

* Bultaka = ozenki, zarataz.

** Sarkik = sartu itzak.

*** Nita jiten = niregana etortzen.

Iñaki Zabaleta: Alkat eta Aristorena. Alkat, zuk egindako lapurretatik Aristorena espetxean, gartzelan dago. Bixita egitera joan zara. Hasi Alkat.

Alkat

Oraino ere naski
lagunak gabiltza
baina zure postura
oso do bortitza,
labur a in naiz eta
egin obra hitsa

barkatu, nik ondatu
derautzut bizitza.

Aristorena

Egunero kartzelan
ari naiz ai-aika
eta gaur horra non dan
Alkaten bixita;
gainera jartzen duzu
aurpegi polita
zoaz begi bixtatik
alu hipokrita.

Alkat

Mintzatua bait zira,
bihotza betean
badakit zureganat
nagola kaltean,
zai egongo naiz beti
kartzela atean
baina ez aserretu
aluen artean.

Aristorena

Honek lotsik ez dauka,
kristorenak dauzka,
nik ekintzik ez egin
epaileek juzka.
Aurpegia egingo
nizuke bi puska
guardiaren makila
eskuan hartuta.

Alkat

Hunek naski makila
derauka nagusi
baina ni naiz lapurra
bertze bat biluzi,
kartzela hortarikan
nahi zaitut jautsi
gorputza kendu baina
mingaina hor utzi.

Aristorena

Esaten du: "Ni nabil
hor eginalean
ikusi nahi bait zaitut
nerekin kalean".
Lagun ona bazara
sartu itzalean
bixitatuko zaitut
datorren hilean.

Iñaki Zabaleta: Arozena eta Xalbador. Ama eta alaba. Arozena ama. Azkenik ezkondu da zure alaba, Xalbador, baina hutsik egin gabe bazkal orduero hortxe azaltzen zaizu etxean. Hasi ama.

Arozena

`Bizi honek izaten du
euri to harría,
alaba ezkondu zait
une pozgarria,
baina bixitatzen nau
zer une haundia!
Zer moduz daramazu
zuk bizi berria?

Xalbador

Gaizkirik bizi hortaz
ez dut egundaino
pentsatu baina nola den
ez dakit oraino;
senarra gizon ona dut
garbi eta sano
baina ama maiteago
hura baino oraino.

Arozenar

Zu egon zindezeke
gauza seguruan
gehiago ez dut inor
maitatzen munduan,
disgustoz ia hil nintzan
zu iuandakuan
gustora hartzen zaitu
amatxok onduan.

Xalbador

Ez dut urrikirikan
ezkontza eginik
eta bizi berri huntan
ez nago ilunik
baina ama gauza hau nahi
dizut gaur erran nik
zu ikusi gabe ez dut
pasa nahi egunik.

Arozena

Zeure gustukua zuk
hartua mutila
berak dionez lanen
azkar ta abila;
nere pentsamentua
gezurra dedila
uste dut zatozela
bazkarian bila

Xalbador

Ama, alaba dezu
ezarri minbera
eta oral ez naiz lehen
bezain alegera,
ezkont aintzineko ama
on bera bazera

eni bazkari emaitia
ez zaizu sobera.

Iñaki Zabaleta: Orain bertsolariak lan berrian jarriko ditugu. Banaka banaka hasiz, lehenen-
gotik zortzigarreneraino puntua eman eta osa dezaten. Lehenengo Lontxo Aburuza.

Iñaki Zabaleta

**Guztia saldu eta
poltsa dut betea**

Aburuza

Horrekin neretzako
kriston suertea
bidai bat egiteko
hartu dut artea,
lagunak ere hortxe
badauka partea.

Iñaki Zabaleta

Orain, oinak emanda berak bertsoa osa
dezala. Hauetxek dira oinak: ARRISKUA,
ESTUA, ESKUA eta PRESTUA.

Aburuza

Txapelak berekin du
hemen arriskua
ta Lorentxo gaur dago (bis)
barrendik estua,
baina aurrean daukat
entzule prestua
horregatikanxe hor (bis)
luzatu eskua.

Iñaki Zabaleta

**Usoa zela ustez
gertatu belea...**

Ezponda

Sinetsi behar dut ta
zuk esan elea
hori delako tinka
nik ere nerea
hala ere ez dago
itxura gabea.

Inaki Zabaleta

**Ardorik ez denean
edaten dut ura...**

Mendiburu

Ura sekulan ez zait

joaiten burura
gaur ere edateko
badaukat mentura
sahetsetik ekartzen
naukate ardura.

Lau oinak: azkarra, garra, beharra, bakarra.

Piztu beharko dira
sua eta garra
nahi badugu egin
herri bat azkarra
gizakoak badauka
laguntza beharra
ama Euskadi ez utz
hor bakar bakarra.

Lau oinak: geroa, badoa, hegoa, gogoa.

Hitzak eman orduko
bertsoa badoa
oinak berak agintzen
bait deraut gogoa.
Alaiki ikusten dut
Euskadin geroa
biak batera bilduz
ipar ta hegoa.

Iñaki Zabaleta

**Urtetik urte dugu
gertaera latza...**

Xalbador

Gaur ere bete behar
hainbeste baldintza
humorea ez bada ere
agertzen eskasa
zortziek xapela ezin
izan esperantza.

Inaki Zabaleta

**Hitzetan luze dena
ekintzetan motza...**

Alkat

Batzu ezagutzen dut ta
hak emaiten lotsa
obrarikan gabe naski
gerorik ez goza
hitzak utzi, obrak egin
bilatzeko poza.

Lau oinak: egitea, katea, urtea, maitea.

Naparroa bi zati
daukazu katea
maite nuke bi puska

noizbait egitea
hortartzeko balitz
aurtengo urtea
eskertuko zintuzket
nik jainko maitea.

Lau oinak: bizkorra, zorra, gogorra, enborra.

Euskaldun semea do
betitik bizkorra
bainan bere borroka
zaila to gogorra
Parisek to Madrilek
haundi dute zorra
eta guk orain azkarrik
Gernikan enborra.

Iñaki Zabaleta

**Alaitzen hasia do
triste zegoena...**

Aristorena

Hori da orain gerta
ziteken onena
batek bere bizitzan
baldin badu pena
arriskuz joan liteke
pikutara dena.

Iñaki Zabaleta

**Euria ez do inoiz
denon gustokoa...**

Arozena

Baina Euskal Herrian
da beharrezkoa
sarri lehorte gehiegi
ta hor arriskua
santu zahar guztiei
luzatuz eskua.

Lou oinak: gibela, epela, direla, motela.

Nik uste dut parrandak
gauza onak direla
baina ondorenean
bat dago motela
nik ere atzokoan
egin nun epela
orain erdi lo nago
hau da hau gibela.

Lou oinak: asea, haizea, luzea, oinazea.

Txapelketa hontarako
banuan haizea
bainan sinistra denok

ia naiz asea
denbora joan eta Joan
hau bait da luzea
nere bihotzak badu
nahiko oinazea.

Iñaki Zabaleta: Gartzelako lana.

1. Bertsoa osatzeko amaiera:

Udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.

2. Gaia:

Adiskide zenuen batek, aberastu denez geroztik, ez du zurekin deus jakin nahi.

Lontxo Aburuza

1

Presondegian aurkitutzen da
euskaldun nere laguna
eta ez pentsa, karga hori da
guztiontzako astuna;
sufrimentuan igarotzen dut
sarri aste to eguna.
*Udaberriok ekar lezoke
neguok kendu diguna..*

Urruti zoaz laguna
dirua da media
eta hargatik jarri naiz
momentuan serio
aldegiten duzu eta
nik zer erremedio;
gure laguntasun horrek
ez al zuen balio.

2

Orain arte hori nuen
nik lagun segurua
baina bakardadean dut
pasatzen apurua
urrun joan zait betiko
belztu da ingurua;
zer kristotan gastatuko
ote duzu dirua.

Ahaztu zero nitaz eta
zu bazoaz aparte,
agian ongi izan ta
izan (e)zazu suerte;
lagun zaharra nauzu eta
beti zaitut nik maite
eta ongi izaten zu
behitzat saiatu zait.

Arginarena

1

Nerekin ados egongo zero
entzuten zauden laguna,
negua berez zitala degu
eta laburra eguna.
Baina aurtengoz gertatu zaigu
negu leihal ta biguna;
*udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.*

Dirua beti maltzurra degu
ez da ez etsai bakarra
baina askotan azpi jokuan
jartzen bait du hatzaparra;
diruagatik itzuli zaizu
zuri maitasun garra.
Dirua beti morroi ona da
baina oso nagusi txarra.

2

Zer ote degu edozein ere
jarrita diruan menpe,
ejenplotxo bat badut hemen ta
uztartutzeko bait gaude;
diruarekin itsututzen da
uste gabez hainbat jende
diruagatik gelditu naiz ni
ez diru ta ez adiskide.

Txanponik gabe lagunak ginan
beti gu bik elkarrekin
baina aberastu zeranean
joan zero berarekin.
Diruagatik laguna galdu
nork ez luke hartuko min,
holako zerbait gertatutzen do
gaur egunean Euskadin.

Ezponda

1

Neguko hotza bihurria do
ez dago gauza biguna
goiz argirik e(re) ez dauka eta
goizikan dago iluna.
Geroa dago ordu haietan
beti amesten deguna
*udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.*

Lehenago biak herritarrak to
denbora do igatua
egun batean nere lagun hau
izan bait zen airatua
eta ni bertan pobre bezala
herria zai geratua;

nere laguna itzuli zait to
osoki aberastua,
diru puska bat du baina
gizatasuna galdua.

2

Baserri koskor ttiki bat nik e(re)
jaio lekutzat izan nun
pobrezia bertan zagola
denetatik zan ezagun,
gero handikan Baionaraino
hori ez bait do hain urrun.
Lehengo lagun bat Amerikatik
jina dela ezagun dun
aitortzen diot nik e(re) ez dut nahi
aberatsa denik lagun.

Horrelaxe do bien artean
denborak eman pausua
nere berririk ez du jakin nahi
nire lehengo lagun gozua;
npatu zaio bere boltsa to
harrotu zaio gogua;
nere bizitza jarraikiko det
nik lehenako modukua,
lagun pobre bat nahiago det
ez zinez bertze faltsua.

Mendiburu

Batetik hotza, bertzetik latza
eta gainerat iluna
aroagatik ere kezkatu
agertu da euskalduna;
kukuak kanta, xoriek kanta
ta ekar askatasuna.
*Udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.*

Lagun maitea joan zira ta
hemen naiz humil humilik
zu aberatsa diru jabea
nik ez dut sakelan pilik,
zer debru bada pentsatu duzu
erraiten dautzu Panpilik
etorri zaite berriz niganat
egongo naizu ixilik.

2

Orain artean hainbeste aldiz
elgar ginduen ikusi
eta ber bertan adiskidantza
nahi ote dezu hautsi,
nahi zu baino lagun hoberik
ezin dut nik nihun kausi
zertako bada joan zira ta
dirua hartuz zure nausi.

Orain artean elgarrekilan
hainbat aldiz egon gaituk
eta bide hoi bide txarrena

lagun maitea hartu duk;
hi aberatsen alde jarrita
oso tristerik hemen nuk
adiskidantza saldu baitaukuk
diru madari(ka)tuan truk.

Aristorena

1

Iruneako udaletxeko
dantzarien oihartzuna
dagoeneko euskaldun orok
izango bait du entzuna;
ikurrina da misterioa
hauxe pena daukaguna,
*udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.*

Orain ez dakit non ote zauden
ni hemen nago Gaiarren
nere dehiadar oihua lagun
entzun ezaidazu arren;
diruarekin uste baduzu
dena badagola hemen
esango dizut gaizki zabilta
guztia ez da izanen,
galdu bait duzu urte askotan
laguna zenduena lehen.

2

Haurtzarotikan izandu dedan
lagun jator ta haundina
urrutiratzen hasi zait orain
zeren diruaren grina
gogoko bait du eta hargatik
orain hurbildu ezina;
garai batean bazenuen ba
lagun on baten premina;
egin duzunak izenik ez du
horrek ematen dit mina.

Nere hitz hauek zure bihotza
ez dakit dezaken mugi
baina kontzientziz lasai al zaude
ni nengokeen urduri
haunditasunak laino beltz hori
zuregan horra ixuri;
baina gorroto apurrik lagun
ez dizut gordeko zuri
lehen bezala nere ondora
etortzen bazera guri.

Arozena

1

Euskaldun denok daramakigu

guk gurutze bat astuna
lehen bagenduen hizkuntz zahar bat
munduak ikasi zuna
gaur beheruntz doa baina argitu
berriro dator eguna;
*udaberriok ekor lezake
neguak kendu diguna.*

Nik uste nuen laguntasuna
ate nuen segurua
eta horrekin trankil nedukan
bizitzen nere burua;
zurekin joan mundurik mundu
hori nuen helburua
zure ondoan ustez banuen
maitasunezko zerua
baina gaur diot maiteago zuk
laguna baino dirua.

2

Txikitandikan urte askotan
elkarrekin gendun suna
eskertzen nuan zuk neretzako
ustez zendun maitasuna;
gaur zoritxarrez bihotzetikan
hori dadukazu juna
ta izango da zure diruak
ezarri dizun isuna.
Gaur pentsatzen det ez zeradela
izan zu nere laguna.

Zure ejemploz behar bada gaur
zerbait nezake ikasi
nahiz to negarrez zure ondotik
ez naiz joango ihesi
gehio sekulan ez beiratzea
pentsatu nuan lehenbizi
baina neretzat izan ziteken
zuretzat hainbat desgrazi
amistaderik diruarekin
inoiz ez zazu zuk nahasi.

Xalbador

1

Esperantza bat badut nahiz ez
oraino kuku entzuna
negu guzia artzain tristeak
pasatzen bait du iluna;
orain airostu gira guztiak
luzatu bait da eguna,
*udaberriok ekar lezake
neguak kendu diguna.*

Nere alderat inguraturik
zinion ginela anai
ni ere garai batez zurekin
erabiltzen nintzen alai
aberastuta bertze aldera

so egiten duzu orai;
zu bezalako adiskideak
bertzetan baditaizke bai
baina holako adiskiderik
nik gehiago ez dut nahi.

2

Adiskidea zinela eman
dautazu frangotan hitza
nik bait nuen bai zure alde
aberatsagoen antza;
gaur aberastu zira zuhaur ta
orain zuk norat balantza?
ez dautazu nahi behatu ere
nitan zuk zer konfiantza
nire laguntza nahi zinueno
zen zure adiskidantza.

Adiskidantza zurean dut nik
sinetsi ene kaltetan
adiskidea agertzen zinen
ardura zure hitzetan;
gaur dezakezu ta etsai zira
agertzen zure obretan
nik adiskide aski badut ta
nahiz biziko neketan
adiskideak maiteak dauzkat
ni aurriduri pobretan.

Alkat

1

Euskal Herrian orain artean
egoera zoin iluna
zapalkuntza bada nunnahitik
denek dute ezaguna;
anaitasuna gu denen arma
adiskide ta laguna;
udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.

Diruan aski Euskal Herria
dago ainitzen kalterat
dirudunetan diferentzirik
ez batetik bertzerat;
guk bihotz on bat daukagu eta
bide hortatik atera
lehen laguna izan dut eta
nago hunen erraiterat:
dirua badu bere helburu j
oan bedi Pariserat.

2

Ene mezua eman nezake
hainbeste jende airosi
batzu errexki erre ditazke
ta beste batzu egosi;
Euskal Herria elkarrekilan

behar dugu inharrosi
diru kontuan baztertu eta
jende pila bat dagotzi,
anaitasuna ene ustean
ezin da diruz erosi.

Orai artean diru kontua
ardura daukat entzuna
eta bihotza kolpatzen deraut
berri hoiien oihartzuna
zenbait ideal badaukagu ta
badaukagu osasuna
nortasuna ta Euskal Herria
dago gure ontasuna;
ez da diruaz egongo nehoiz
herriko etorkizuna.

Iñaki Zabaleta: Txapelduna Mixel "Xalbador", 537,5 puntu. Txapela Emile Larrek emanen dio Euskaltzaindiaren izenean. Eta, kopa eta 50.000 pezeta Marisa Lopezek Nafar Gobernuaren izenean.

Gartzelako gaian bertso onenaren saria ere Mixel "Xalbadorri" dagokio.

Beste sei bertsolarientzat ere, hau da, Aburuza, Arginarena, Ezponda, Mendiburu, Aristorena eta Alkatentzat 20.000 pezeta eta kopa bana izanen dira.

Xalbador

Xapelarekin pozik joko dut
gure etxeko aldaba
ta agurtuko maite ditutan
andre ta hiru alaba.
Baina lehenik zuer nezake
konfiantzaz zerbait galda:
ni xapelduna izaitea gaur
zuen gustokoa al da?

Nolaz bait ere bukatu dugu
gure lanerako bulta
huts bat eginik aritu nintzan
rekono eta reputa!
Baina kuraia berriz bildu dut
zuen txaloak entzunta
bihotz guziaz dener eskerrak
xapel maite hau kenduta.